
 castellano

**Berriak** **Gizartekintza** **Kontsumoa** **Ingurugiroa** **Euskara** **Animaliak** **Eskaerak**

ESKOLA - LEHIAKETA "KONTSUMO ARDURATSU ETA SOLIDARIOA", LANAK ETA SARIEN BANAKETA

Kostabarri aldizkaria. Abendua 2002. PDF - 771 Ks.

SEDIM zerbitzua

Gatzarriñe, 2-4  
48600-Sopelana  
telf: 94.676.26.74  
fax: 94.676.28.72

Administrazioa [ikerne.unibaso@uribekosta.org](mailto:ikerne.unibaso@uribekosta.org)

Gizartekintza

Barrika, Berango, Lemoiz [pili.udaeta@uribekosta.org](mailto:pili.udaeta@uribekosta.org)

Plentzia, Gorliz [bego.ruiz@uribekosta.org](mailto:bego.ruiz@uribekosta.org)

Sopelana, Urduliz [marisa.irastorza@uribekosta.org](mailto:marisa.irastorza@uribekosta.org)

Gizarteratze-Hitzarmenak [ikerne.erenozaga@uribekosta.org](mailto:ikerne.erenozaga@uribekosta.org)

Drogomenpekotasunak prebenitzeko zerbitzua [guillermo.canales@uribekosta.org](mailto:guillermo.canales@uribekosta.org)

Giza - Hezkuntzazko Interbentzioa

[puy.zabal@uribekosta.org](mailto:puy.zabal@uribekosta.org)

[eva.iglesias@uribekosta.org](mailto:eva.iglesias@uribekosta.org)

Emakumeentzako Aholkularitza [kosta@uribekosta.org](mailto:kosta@uribekosta.org)

Juridikoa

Kontsumoa [conchi.racion@uribekosta.org](mailto:conchi.racion@uribekosta.org)

Listo Internet

## ENPRESA-MUNDUA

### Biztanleria, lan-sektorearen arabera

Uribe-Kostako langile gehienek (%67,11) zerbitzuetan egiten dute lan. Zerbitzuen ondoren industrian dihardute gehienek (%24,43). Eraikuntzan aritzen direnak %6,55 dira. Azkenik, langile gutxien biltzen duen sektorea nekazaritzakoa da (%1,91).

Uribe-Kostan zerbitzuetan dihardutenen langileen portzentajea EAEko portzentajea baino handiagoa da 9 puntutan.

	Guztira	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	689.100	%2,47	%31,84	%6,99	%58,70
Bizkaia	353.792	%2,04	%29,35	%7,15	%61,45
Plentzia-Mungia	14.109	%4,09	%28,39	%5,8	%61,72
Barrika	368	%1,09	%19,84	%9,24	%69,84
Berango	1.472	%1,29	%25,48	%9,38	%63,86
Gorliz	1.272	%2,75	%20,44	%6,68	%70,13
Lemoiz	261	%9,58	%16,48	%6,13	%67,82
Plentzia	1.089	%1,65	%18,92	%4,59	%74,84
Sopelana	3.367	%1,10	%26,58	%4,72	%67,60
Urduliz	899	%3,23	%31,15	%10,01	%55,62
<b>Uribe-Kosta</b>	<b>8.728</b>	<b>%1,91</b>	<b>%24,43</b>	<b>%6,55</b>	<b>%67,11</b>

### Erabilera-plana enpresetan

Ez dago enpresarik erabilera-plana martxan duenik.

## EUSKARAREN ELIKADURA

### KOMUNIKABIDEAK

90eko hamarkadaren erdialdean sortu zen Bizarra Lepoan aldizkaria, handik zenbait urtera UK (Uribe Kostako aldizkaria) izena hartuko zuena. 2003ko otsailaren 16tik aurrera hamabostekaria izatera pasa da; lehen hilabetekaria zen. 60 orrialdeko aldizkaria da eta Erandiotik Lemoizera arteko herri guztien informazioa jasotzen du. UK aldizkaria dohainik banatzen da harpidedunen artean.

## EUSKARAREN AURREKONTUA

Sopelanako euskararen aurrekontua bakarrik daukagu, izan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 1999an eginiko aurrekontuen azterketa, 5.000 biztanletik gorako udaletan egin baitzen.

Sopelanako Udalak 22 milioi pezeta inguru (132.222 €) bideratu zituen 1999an euskara sustatzeko. Bere aurrekontuaren %2a.

Euskararen aurrekontua				
	Aurrekontu Bateratua	Aurrekontu Propioa	Euskara Sustatzeko	% Euskara Sustatzeko
Bizkaia	102.618	100.370	711	%0,71
Sopelana	1.145	1.116	22	%2,00

Kontzeptuka aztertuz gero, euskararen aurrekontuaren zatirik handiena euskalduntze-alfabetatzean (%39,64) eta pertsonal gastuetan (%23,23) erabili da. Ondoren, euskarazko materialgintzan (%18,7) gastatu da diru gehien.

Euskararen aurrekontua egitarauak																	
	Euskalduntze eta alfabetatzea	Euskararen sustapena: gazteak,...	Elkarte ezberdinei dirulaguntzak	Literatura eta irakurzaletasuna	Komunikabideak	Euskararen erabilerako planak	Bertsolaritza	Euskarazko materialgintza	Etnokultura	Antzerkia eta zinea	Txostenak eta ikerketak	Hizkuntza paisaia eta errotulazioa	Beste gastu kontzeptu batzuk	Sentsibilizazioa eta kanpainak	Pertsonal-gastuak	Funtzionamendu-gastuak	Euskara sustatzeko guztira
Bizkaia	289.317	54.254	56.740	8.131	2.347	10.959	13.560	4.400	7.775	9.049	5.900	1.446	20.438	18.138	184.034	24.499	710.987
Bizkaia %	40,69	7,63	7,98	1,14	0,33	1,54	1,91	0,62	1,09	1,27	0,83	0,20	2,87	2,55	25,88	3,45	
Sopelana	8.840	44		250	258	774		3.400	1.925	500		500	463	100	5.248		22.302
Sopelana %	39,64	0,20		1,12	1,16	3,47		15,25	8,63	2,24		2,24	2,08	0,45	23,53		

## ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak

### INDARGUNEAK

- ❑ 1981etik 1996ra euskaldunen portzentajea %6 hazi da.
- ❑ 24 urtetik beherako adin-tarteetan euskaldunak nagusi dira (14 urtetik beherako hiru lagunetik bi euskaldunak dira).
- ❑ Hiztun-irabaziak: 19 urtetik beherako hiru lagunetik bat euskaldun berria da.
- ❑ Irakaskuntza: D eredia nagusi da Uribe-Kostako ikastetxeetan; ikasleen ia bi herenek D eredia aukeratu dute.
- ❑ Lanbide Heziketan ezik, beste irakasmaila guztietan D eredia nagusi da.
- ❑ Komunikabideak: **UK** hamabostekaria doan banatzen da.

### AHULEZIAK

- ❑ Erdaldun elebazarren portzentajea, beherako joera izan arren, nahiko altua da (%44,65).
- ❑ Hizkuntza bilakaeraren tipologia kontutan hartzen badugu, multzorik handiena erdaldun zaharrena da (%43,13).
- ❑ Etxeko euskaldunak familiako %60 baino gutxiago direnean (biztanleen %70,89), etxean ia ez da euskararik erabiltzen.
- ❑ Lanbide Heziketan A eredia da bakarra.
- ❑ Euskara-planaren proposamenik egin gabe.

## ONDORIOAK

Aztertzen ari garen udalerriak zazpi dira: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz. Plentzia-Mungia eskualdean kokatutako Uribe-Kostan daude.

1996ko datuen arabera, Uribe-Kostan 25.408 lagun bizi dira, Plentzia-Mungia eskualdeko biztanleen erdia (%52,15) hain zuzen. Biztanle gehien duen udalerria Sopelana da (9.460) eta biztanle gutxien duen udalerria, berriz, Lemoiz (829).

1981-1996 bitartean Uribe-Kostan biztanleen hazkundera izan da (%23,1 hazi da). Lemoizek izan ezik, gainontzeko udalerrietan biztanle-kopuruak gora egin du. Nabarmentzekoa da Barrikako eta Sopelanako hazkundera, %35,3 eta %50,9 hazi dira, hurrenez hurren. Datu esanguratsua da hazkunderarena, izan ere, EAEko hiru udalerritik bik, biztanleak galdu dituzte.


Bestalde, biztanleriaren egitura, adinaren arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa da gazteen portzentajea EAEko batez bestekoa baino handiagoa izatea (%2ko alde). Azken emaitza hau normala da, izan ere, konprobatuta dago gazteen batez bestekoa eta udalerrietako biztanleriaren hazkundera elkar loturik daudela; hau da, biztanleria irabazi duten udalerrietan gazteen portzentajea handiagoa da eta, alderantziz, biztanleak galdu dituztenetan gazteen portzentajea txikiagoa da. Gazteen portzentaje altu hori gure egitasmoetan eta helburuetan aintzat hartu beharko dugu.

1996ko datuen arabera, Uribe-Kostako biztanleriaren heren bat pasatxo (%35,7) euskalduna da eta bost lagunetik bat (%19,7) elebidun hartzailea. Biztanle asko, berriz, (%44,7) erdaldun elebakarrak dira.

Euskaldunen portzentajea kontutan harturik, desberdintasunak daude udalerrien artean. Euskaldunak nagusi dira hiru udalerrietan, Barrikan (%42,89), Lemoizen (%68,74) eta Urdulizen (%47,68). Gainontzeko lau udalerrietan euskaldunak %30 inguru dira eta erdaldun elebakarrak nagusi dira.

Hizkuntza-gaitasuna, udalerraren arabera (Plentzia-Mungia)

Competencia lingüística por municipios (Plentzia-Mungia)



Bilakaerari dagokionez, 1981etik 1996ra euskaldunen portzentajeak eta elebidun hartzailen portzentajeak gora egin dute (6 puntu eta 3 puntu, hurrenez hurren). Erdaldun elebkarren portzentajeak, berriz, 9 puntu egin du behera. Nabarmentzekoa da euskaldunen portzentajeak gora egitea Uribe-Kostako udalerrri guztietan.

## Euskararen ondorengoetaratzea

Biztanleen %18,07 euskaldun zaharrak dira. Euskaldunen arteko erdia (%50,62) euskaldun zaharra da, hau da, etxean jaso dute euskara eta gaur egun gorde egiten dute. Euskaldun berriak %12,4 dira eta hiru euskaldunetik bat euskaldun berria da. Gazteen artean nabarmen egiten du gora portzentaje honek. 19 urtetik beherako hiru lagunetik bat euskaldun berria da, hots, euskara ez den hizkuntza izan du ama-hizkuntza eta euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten du. Euskaldunen artean, 19 urtetik beherako gaztetxoek erdia baino gehiago euskaldun berria da.

Euskaldunen erdia (%51,29) euskaldun zaharra da, hau da, etxean jaso dute euskara eta gaur egun gorde egiten dute. Horri eutsi beharra dago, horixe baita euskara eskuratzeko era naturala, transmisioa ziurtatzeko biderik eraginkorrena eta erabilera ziurtatzeko modurik ziurrena. Hala ere, euskaldun berrien garrantzia ere handia da, hiru euskaldunetik bat euskaldun berria da. Gazteen artean nabarmen egiten du gora portzentaje honek. 19 urtetik beherako hiru lagunetik bat euskaldun berria da, hots, euskara ez den hizkuntza izan du ama-hizkuntza eta euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten du. Euskaldunen artean, 19 urtetik beherako gaztetxoek erdia baino gehiago euskaldun berria da. Beraz, oraindik euskaldun gehienek euskara etxean jaso badute ere, gero eta gehiago dira giro erdaldunean hazi diren euskaldun berri gazteak. Euskaldun berriak izanik, euskaraz jarduteko gaitasun osoa izan arren, etxeko giroa erdalduna dute. Hortaz, aukera gutxi dute etxean euskaraz mintzatzeko (euskaldun berrien %78,7k gaztelaniaz hitz egiten dute etxean). Bestalde, gaztelaniaz errazago moldatzen direnez, joera dute hizkuntza hori erabiltzeko etxetik kanpo ere.

Hori dela eta, familiaren geroratzearen inguruko esparruan, ona litzateke familia bidezko jarraipena indartzeaz gain, sortzen ari diren edo etorkizunean sortuko diren familia berrietan euskal giroa nagusi izan dadin ahaleginak egitea. Familia-jarraipena bermatzeari begira, sentsibilizazio-ekintzetan, batetik eta, bestetik, familia osoarentzako ekintza osagarrietan egin beharko litzateke indarra, azken horiek eskolaz kanpoko ekintzekin lotuta. Horren harira, hona hemen zenbait ekintza:

- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)
- Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegia edo haur-eskolak eskaini
- Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak
- Euskaraz dakiten haur zainzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini

Euskaldun-kopuruaren gorakadan, hezkuntzak duen garrantziaz oharturik eta D ereduaren nagusitasuna ikusirik, ona litzateke ikastetxeetan euskara ohiko hizkuntza-harreman bezala sendotzea, euskara-planak bultzatuz. Uribe-Kostan bederatzi ikastetxe daude eta Plentzia LHI eta CEP Sto. Domingo de Guzman LHI dira euskara-planean murgildurik dauden bakarrak. Horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza jasotzen dute.

Bestalde, Lanbide Heziketa enpresetako bihar-etziko langileen harrobia denez, ahalegin berezia egin beharko litzateke euskararen erabilera areagotzeko. Egun, A eredu bakarra da Lanbide Heziketan eta ona litzateke B eta D eredu eskaintza zabalduz, ikasmaterialak euskaraz sortzea edota egokitzea. Irakaskuntza alorrean proposatzen diren zenbait ekintza:

- Irakaskuntza sisteman sartzeaz dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak,...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.
- Ikastetxeen errotulazioa era egokian jartzeko laguntza

- ❑ Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea
- ❑ Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini
- ❑ Lanbide Hezkuntzako zentroetan euskara sustatzeko laguntza ematea

Euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, HABEk emandako informazioaren arabera, Uribe-Kostan hiru euskaltegi daude, Sopelanakako Udal Euskaltegia, Lauaxeta AEK eta Ulibarri. Lauaxeta AEK euskaltegiak, Gorlizen, Plentzian, Sopelanan, Berangon eta Urdulizen taldeak ditu, beraz, Uribe-Kostako bost udalerritan sakabanatuta daude euskaltegiak. Guztira, 232 ikasle ari dira euskalduntze-alfabetatze ahaleginetan; gehienak, Sopelanan (149 ikasle).

Euskalduntze-alfabetatzean eragiteko proposatzen diren zenbait ekintza:

- ❑ Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleen euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak...
- ❑ Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini
- ❑ Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
- ❑ Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
- ❑ Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaini
- ❑ Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea

## Euskararen erabilera

Euskara erabiltzeko esparruak zabaltzen jarraitzeko beharra ageri da, eta ona litzateke Udal desberdinen gidaritzapean, aisia, kirola, katekesia eta kulturagintza esparruetan euskararen presentzia bermatzea eta besterik gabe euskara erabiltzeko aukerak eskaintzen jarraitzea. Ekintza horiek dibertsifikatu beharko lirateke, adin tarte ezberdinetako euskaldunengana iristeko.

Esparru horietan denetan haur eta gazteentzako eskaintzari erreparatu beharko litzaioke, bereziki. Besteak beste, haientzako dauden euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa helarazi daiteke, eta horretarako, egun eskuera dauden jokoan, liburuen, komikien, bideoen edota teknologia berrietan oinarritutako produktuen katalogoa osa daiteke. Horrela, euskarazko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko litzateke. Hona hemen proposatutako ekintza batzuk:

- ❑ Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu
- ❑ Euskal giroan bizitzeko aukera eskaintzeko irteerak eta egonaldiak antolatu eremu euskaldunetan
- ❑ Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu
- ❑ Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu
- ❑ Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea
- ❑ Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin
- ❑ Katekesia euskaraz ere eskaini
- ❑ Katekesi ekintzetan erabiltzen den euskarazko materiala zabaltzen laguntzea

Teknologia berriak ezin albo batera utzi, eta komenigarria da esparru hori gogoan izatea. Udalerrietako elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza eskaini daiteke. Horren harira, Udalek beraiek eredu izan beharko lukete. Beraien web orrietan euskararen erabilera gaztelaniazkoaren parean jarri dute gutxi gorabehera.

Administrazio mailan, Udalek zein Uribe-Kostako mankomunitateak, bideragarritasun txostenak onartuta dituzte, baina oraindik, euskara-planaren proposamenik ez dute egin.

Bestalde, udal-langileei ezarritako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen jarraitu beharko lukete.

Administrazio atalean, euskararen normalkuntzarako bidean proposatutako beste zenbait ekintza:

- ❑ Euskara zerbitzuaren eginkizunaren arabera baliabideen beharrak neurtu
- ❑ Udaletan Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu
- ❑ Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarterekin batera
- ❑ Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean

Lan munduan, gaur egun Uribe-Kostan ez dago erabilera-plana martxan duen enpresarik. Horren harira, enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini dezakete Udalek. Ona litzateke bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaintzea. Erabateko lehentasunik ez izan arren, bideragarri den heinean, merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak ere jar ditzakete abian Udalek.

## Euskararen elikadura

Komunikabideak. UK euskarazko aldizkaria hilabetekaria izatetik hamabostekaria izatera pasatu da. 60 orrialdeko aldizkari honek Erandiotik Lemoizera arteko herri guztien informazioa jasotzen du eta dohainik banatzen da harpidedunen artean. Komunikabideen alorrean aurrera eraman daitezkeen zenbait ekintza:

- ❑ Eskualde edo herri mailako komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzearen, laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak
- ❑ Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak
- ❑ Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu
- ❑ Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea

Kulturgintzaren arloan, bestalde, herrietako festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu beharko litzateke. Euskarazko kultur plangintza diseinatu dezakete Udalek, aldizkakotasuna bermatzeari begira.

Elebidun hartzaileak ere hartu behar dira kontuan. Euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten arren, ondo ulertzen dute euskara. Multzo hori erakartzeko kanpaina bereziak antola daitezke. Udalek horrelako ekimenak lagundu eta bultzatzea ditzakete.

Ona litzateke, azkenik, corpus plangintza alorrean, toponimoak eta herrietako ageriko hizkuntza-paisaiak normalizatzea Euskaltzaindiarekin bat etorriz.

## EUSKARAREN AURREKONTUA

Sopelanako euskararen aurrekontua bakarrik daukagu, izan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 1999an eginiko aurrekontuen azterketa, 5.000 biztanletik gorako udaletan egin baitzen.

Sopelanako Udalak 22 milioi pezeta inguru (132.222 €) bideratu zituen 1999an euskara sustatzeko. Bere aurrekontuaren %2a.

Kontzeptuka aztertuz gero, euskararen aurrekontuaren zatirik handiena euskalduntze-alfabetatzean (%39,64) eta pertsonal gastuetan (%23,23) erabili da. Ondoren, euskarazko materialgintzan (%18,7) gastatu da diru gehien.

Ona litzateke Udalek euskararen sustapenerako bideratzen duten aurrekontua aztertzea, erakundeetan euskara biziberritzeko nahikoa duten edo gehitu beharko litzatekeen erabakitzeko. Ikustekoa da, halaber, euskara-aurrekontuek diagnosiak agerrarazten dituen beharrei ia behar bezala erantzuten dieten, eta aurrekontuen hazkundera izanez gero, zein helburutarako erabil daitezkeen kopuru gehigarri horiek.

## GIZA BALIABIDEAK

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko udaletako, mankomunitateetako, koadriletako eta udal elkarteetako Euskara Zerbitzuak aztertu dituen ikerlana egin zuen. Lan horretan udaletako euskara zerbitzuei buruzko diagnosis egin da, eta emaitzen arabera, zerbitzuen funtzioak eta gutxieneko tamaina finkatzeko proposamena egin da. Dena den, udal bakoitzean EBPN-n jasotako helburuek eta proposatutako egitasmoek emango dute dimentsionamenduaren eta funtzioen gaineko informazio zehatza.

25.408 lagun bizi dira Uribe-Kostako Mankomunitatean eta horietatik %35,7 euskaldunak izanik, 6 langile legezkiok, gutxienez: 3 euskara-teknikari (bi kanpoko euskara-teknikari eta bat barrukoa), trebatzaile bat, itzultzaile bat eta administrari bat.

## **GLOSARIO: erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa** Glosario: definición de las variables y conceptos empleados

### ***HIZKUNTZA-GAITASUNA (HPS / VPL)<sup>2</sup>***

Hizkuntza (euskara) zenbateraino menperatzen den ezagutzeko, oinarrizko hizkuntz trebetasunak (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) gurutzatzen dituen tipologia.

Tipología que combina los distintos niveles de las destrezas lingüísticas básicas (entender, hablar, leer y escribir) para establecer una tipología del dominio de la lengua (euskera).

#### ***Euskaldunak / Euskaldunes***

Gutxienez euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten dutenak.

Aquellas personas que al menos entienden y hablan “bien” el euskera.

#### ***Elebidun hartzaileak / Bilingües pasivos (HPS / VPL)***

Euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak.

Aquellas personas que hablan el euskera “condificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

#### ***Erdaldun elebakarrak / Erdaldunes monolingües (HPS / VPL)***

Euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez duten pertsonak.

Personas que no hablan nada el euskera y no lo entienden ni lo leen “bien”.

### ***ETXEKO HIZKUNTZA / LENGUA HABLADA EN CASA***

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

Es la lengua que se habla con mayor frecuencia dentro del domicilio.

---

<sup>3</sup> Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finkatutako sailkapena  
Clasificación establecida por la Dirección de Estudios y Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística

## **HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA / TIPOLOGIA DE MOVILIDAD LINGÜÍSTICA**

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko ama-hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren gurutzapenean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzapen horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira.

Es una tipología establecida en base al cruce de las variables de Lengua materna y Competencia lingüística (VPL) con el que se trata de analizar la evolución lingüística de los individuos. Las categorías resultantes del cruce son 15 aunque para su análisis se han reagrupado en 7.

### ***Euskaldun zaharrak / Vascófonos***

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.  
Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera y que lo entienden y lo hablan “bien”.

### ***Jatorrizko elebidunak / Bilingües de origen***

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.  
Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera y el castellano y que entienden y hablan “bien” el euskera.

### ***Partzialki erdaldunduak / Parcialmente castellanizados***

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera o el euskera y el castellano y que hablan el euskera “con dificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

### ***Guztiz erdaldunduak / Totalmente castellanizados***

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, eta “ondo” ez ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el euskera o el euskera y el castellano y que no hablan nada el euskera y no lo entienden ni lo leen “bien”.

### ***Euskaldun berriak / Neovascófonos***

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que entienden y hablan “bien” el euskera.

***Partzialki euskaldun berriak / Neovascófonos parciales***

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que hablan el euskera “con dificultad” o que, no hablándolo, lo entienden o lo leen “bien”.

***Erdaldun zaharrak / Castellánófonos***

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ez “ondo” ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

Aquellas personas cuya lengua materna ha sido el castellano u otra distinta del euskera y que no lo hablan nada y no lo entienden ni lo leen “bien”.